Aurrez hainbat ezaugarriekin grabatutako soinuek osatzen dituzte blokeak. Blokeak talde hauen arabera sailkatzen dira: **Sarrera**, **Ahapaldia**, **Errepika** eta **Soloa**. Melodia bat pistetan musika-blokeak gehituta osa dezakezu.

### **Melodia bat konposatzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Denborapasak > MusicDJ**®.
- 2 Hautatu blokeekin zer egin: **Txert.**, **Kopiatu** edo **Erantsi**.
- 3 Erabili , ,  edo  bloke batetik bestera joateko.
- 4 Hautatu **Aukerak > Gorde melodia**.

### **Melodia bat bidaltzeko**

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategien administratzailea**.
- 2 Joan **Musika** aukerara, eta hautatu **Ireki**.
- 3 Joan doinu batera eta hautatu **Aukerak > Bidali**.
- 4 Hautatu transferentzia-metodo bat.

- ! *Ziurtatu hartzailearen gailuak zuk transferitzeko hautatutako modua onartzen duela.*

### **Melodia bat jasotzeko**

- Segi agertzen diren jarraibideei.

- ! *Melodia polifonikoak edo MP3 mezuak ezin dira testu-mezuen bidez bidali.*

### **Grabagailua**

Ahots-gogorarazleak edo elkarrizketak graba ditzakezu. Grabatutako soinuak dei-tonu gisa ere ezar daitezke.

- ! *Herialde edo estatu batzuetako legeek deia grabatzen hasi aurretik beste pertsonari jakinaraztera behartzen dute.*

### **Soinu bat grabatzeko**

- Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Denborapasak > Soinua grabatu**.

### **Grabazioak entzuteko:**

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategien administratzailea**.
- 2 Joan **Musika** aukerara, eta hautatu **Ireki**.
- 3 Joan grabazio batera eta hautatu **Errep**.

### **Jokoak**

Telefonoak hainbat joko ditu. Halaber, jokoak deskarga ditzakezu. Joko gehienek laguntza dute.

### ***Jokoak bat abiarazteko:***

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoela, hautatu **Menua > Denborapasak > Jokoak**.
- 2 Hautatu joko bat.

### ***Jokoa amaitzeko***

- Sakatu .

### **Jokatzeko kontrolak**

Telefonoko teklak jokoetarako kontrol moduan erabil daitezke. Joko batzuetarako, telefonoa erabat okertu ahal izango duzu ezkerrera, eskuinera, gora eta behera, jokorako kontrol gisa.



## **Aplikazioak**

Java aplikazioak deskarga eta exekuta ditzakezu. Horrez gain, informazioa ikus dezakezu, edo baimenak ezarri.

### **Java<sup>®</sup> aplikazioak erabili aurretik**

Doikuntzak telefonoan sartuta ez badaude, ikus *Ezarpenak*, 54. orrialdean.

#### ***Java aplikazio bat hautatzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Aplikazioak**.
- 2 Hautatu aplikazio bat.

#### ***Java aplikazioari buruzko informazioa ikusteko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Aplikazioak**.
- 2 Joan aplikazio batera, eta hautatu **Auker > Inform**.

#### ***Java aplikazioetarako baimenak ezartzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Aplikazioak**.
- 2 Joan aplikazio batera, eta hautatu **Aukerak > Baimenak**.
- 3 Ezarri baimenak.

## Java aplikazioetarako pantailaren tamaina

Java aplikazio batzuk pantailaren tamaina jakin baterako diseinatuta daude. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan aplikazioaren hornitzailearekin.

### *Java aplikazioetarako pantailaren tamaina ezartzeko*

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Aplikazioak.
- 2 Joan aplikazio batera eta hautatu Aukerak > Pantaila tam.
- 3 Hautatu aukera bat.

## Interneteko profilak Java aplikazioetarako

Java aplikazio batzuen kasuan, Internetera konektatu behar da informazioa jasotzeko. Java aplikazio gehienek web nabigatzailearen Interneteko ezarpen berberak erabiltzen dituzte.

# Konektagarritasuna

## Ezarpenak

Interneteko zerbitzu batekin sinkronizatu aurretik, erabili telefonoko ezarpenak eskatzen dituzten Internet, PlayNow®, Nire adiskideak, Java, MMS, posta elektronikoa eta irudien bloga.

Oraindik ezarpenik sartu ez baduzu, konfigurazio laguntzailearen bidez edo [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) gunearen bidez deskarga ditzakezu.

### *Doikuntzak konfigurazio-laguntzailea erabiltzaile deskargatzeko*

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Konfigurazio laguntzailea. > Ezarpenak deskargatzea
- 2 Segi agertzen diren jarraibideei.



*Galdetu sareko operadoreari edo zerbitzu-hornitzaileari informazio gehiago lortzeko.*

### *Ezarpenak ordenagailu bidez deskargatzeko*

- 1 Joan gune honetara: [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support).
- 2 Jarraitu pantailako argibideei.

## Telefonoaren izena

Idatzi telefonoaren izena, beste gailuetan irakur dezaten.

### *Telefonoaren izena sartzeko*

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Telefonoaren izena**.
- 2 Sartu telefono-zenbakia eta hautatu **Ados**.

## Internet erabiltzea

Erabili Internet lineako zerbitzuetara sartzeko.

### *Nabigatzen hasteko*

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Internet**
- 2 Hautatu **Aukerak > Jo hona**. Hautatu aukera bat.

### *Nabigatzailetik irteteko*

- Interneten nabigatzen ari zarela, hautatu **Aukerak > Irten arakatzailetik**.

### *Nabigatzen ari zarela telefonoz deitzeko*

- Interneten nabigatzen ari zarela, sakatu .

### *Web orrialde batetik elementu bat gordetzeko*

- 1 Internet nabigatzen ari zarela, hautatu elementu bat.
- 2 Hautatu **Aukerak > Tresnak** eta gorde elementua.

### *Web gune batean testua bilatzeko*

- 1 Internet nabigatzen ari zarela, hautatu **Aukerak > Tresnak > Bilatu orri honetan**.
- 2 Idatzi testua, eta sakatu **Bilatu**.

### *Esteka bat bidaltzeko*

- 1 Interneten nabigatzen ari zarela, hautatu **Aukerak > Tresnak > Bidali esteka**.
- 2 Hautatu aukera bat.

### *Gogokoak erabiltzea*

Gogokoak sortu eta edita ditzakezu, gogoko web-etara bizkor sartzeko esteka gisa erabiltzeko.

### *Gogoko bat sortzeko*

- 1 Internet nabigatzen ari zarela, hautatu **Aukerak > Tresnak > Gogokoak gehitu**.
- 2 Sartu izenburu bat eta helbide bat. Hautatu **Gorde**.



### **Gogoko bat hautatzeko**

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoela, hautatu **Menua > Internet**
- 2 Hautatu **Aukerak > Jo hona > Gogokoak**.
- 3 Joan gogoko batera eta sakatu **Jo hona**.

### **Interneteko lasterbideak**

Teklatua erabil dezakezu Interneteko nabigatzaileko funtzio batera bizkor iristeko.

### **Interneten ari zarela erabiltzeko lasterbideak hautatzeko**






- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan dagoela, hautatu **Menua > Internet**
- 2 Hautatu **Aukerak > Aurreratua > Teklatu modua > Lasterbideak**.

---

#### **Teklak**

#### **Lasterbidea**

---

	Laster-markak
	Helbide, laster-marka edo historia eremua idatzi.
	Aldatu ikuspegi osoa, horizontala, edo normalaren artean.
	Zooma
	Panoramikoa eta zooma (Smart-Fit desaktibatuta badago soilik erabil daiteke).

---


### **Interneteko segurtasuna eta ziurtagiriak**

Telefonoak seguru nabigatzeko aukera ematen du. Interneteko zerbitzu batzuek (adibidez, banku-zerbitzuak) ziurtagiria erabiltzen dute. Litekeena da zure telefonoak erosi duzunean ziurtagiria izatea. Gainera, ziurtagiri berriak deskarga ditzakezu.

### **Ziurtagiriak telefonoan ikusteko**

- Deiak egiteko/jasotzeko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Segurtasuna > Ziurtagiriak**.

### **Web dokumentuak**

Eduki eguneratua maiztasun jakin batekin jaso dezakezu; esate baterako, podcast-ak edo albisteen izenburuak eta web dokumentuak. Orri bati web dokumentuak erants diezazkiokezu, betiere  ikonoa badute.

### **Web gune bati eduki berri bat eransteko**

- Web dokumentuak dituen Interneteko orri batean nabigatzen ari zarela, hautatu **Aukerak > Web dokumentuak**.

### **Web dokumentu berriak sortzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Mezularitza > Web dokumentuak > Auker. > RSS dok. berria.**
- 2 Sartu helbidea, eta hautatu **Jo hona.**

### **Web dokumentuetako aukerak ezartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Mezularitza > Web dokumentuak.**
- 2 Joan web dokumentu batera, eta hautatu **Aukera.**
- 3 Hautatu aukera bat.

## **Haririk gabeko Bluetooth <sup>TM</sup> teknologia**

Bluetooth funtzioaren bidez, haririk gabe konekta zaitzke beste Bluetooth gailu batera. Besteak beste, aukera hauek dituzu:

- Esku libreko gailu batera konektatzea.
- Une berean hainbat gailutara konektatzea.
- Ordenagailuetara konektatzea eta Internetera sartzea.
- Elementuak trukatzea eta hainbat jokalarirekin jokatzea.



*Bluetooth bidezko komunikazioetan, gailuen artean gehienez 10 metroko distantzia egotea (33 oin) eta tartean objektu solidorik ez egotea aholkatzen da.*

### **Bluetooth hari gabeko teknologia erabili aurretik**

Bluetooth funtzioa aktibatu behar duzu, beste gailu batzuekin komunikatzeko. Horrez gain, telefonoa beste Bluetooth gailu batzuekin lotu beharko duzu.

### **Bluetooth funtzioa aktibatzeko\***

Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Aktibatu.**



*Egiaztatu zure telefonoarekin lotu nahi duzun gailuak Bluetooth funtzioa aktibatuta duela eta ikus daitekeela.*

### **Telefonoa gailu batekin lotzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Nire gailuak.**
- 2 Zoaz **Gailu berria** aukeraraino, eta hautatu **Gehitu** eskura dauden gailuak bilatzeko.
- 3 Hautatu gailu bat.
- 4 Idatzi sarbide-kodea, behar izanez gero.

### ***Telefonoarekin konektatzeko aukera emateko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Nire gailuak.
- 2 Hautatu gailu bat zerrendan.
- 3 Hautatu Auker. > Baimendu konex.

### ***Telefonoa lehen aldiz Bluetooth esku libreko batekin lotzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Esku libreak.
- 2 Hautatu Bai.  
Idatzi sarbide-kodea, behar izanez gero.

### ***Telefonoa Bluetooth esku-libreko bat baino gehiagorekin lotzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Esku libreak > Nire esku librekoa > Esku libreko berria.
- 2 Joan gailu batera, eta hautatu Gehitu.

### **Energia aurreztea**

Energia aurreztea funtzioarekin bateriaren energia aurrez dezakezu. Bluetooth gailu bakarrera konektatu ahal izango duzu. Funtzio hau desaktibatu behar duzu, aldi berean Bluetooth gailu bat baino gehiagotara konektatu nahi baduzu.

### ***Energia aurrezteko aukera aktibatzeko***

- Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Bateria aurrezpena > Aukeratu.

### ***Elementu bat jasotzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Aktibatu.
- 2 Elementua jasotzean, segitu azaltzen diren jarraibideei.

### **Bluetooth esku-librekotik eta esku-librekorako soinua transferitzea**

Soinua transferi dezakezu Bluetooth esku libreko gailu batetik eta gailu horretara, telefonoko edo esku libreko gailuko tekla bakar bat sakatuta.

### ***Soinua transferitzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > Bluetooth > Esku libreak > Sarrerako deia.
- 2 Hautatu aukera bat. Telefonoan aukerarekin, soinua telefonora transferitzen du. Esku libreak aukerarekin, soinua esku-librekorara transferitzen du.

### **Hitz egiten ari zarela, soinuak transferitzeko**

- 1 Hitz egiten ari zarela, hautatu **Soinua > Transferitu soinua**.
- 2 Hautatu zerrendako funtzio bat.

### **Fitxategiak transferitzea**

Fitxategiak sinkroniza eta transferi ditzakezu, haririk gabeko Bluetooth teknologiaren bidez. Ikus *Ordenagailuarekin sinkronizatzea*, 61. orrialdean.

### **USB kablea erabiltzea**

Konektatu telefonoa ordenagailu batera USB kable batekin, fitxategiak **Almacen. masivo** edo **Transf. de medios** aukeren bitartez. Fitxategiak, sinkronizatu transferitu ere egin ditzakezu, baita telefonoa modem gisa erabili ere **Tel. modua**. aukeraren bitartez. Informazio gehiagorako, kontsultatu Hasi atala [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) orrian.

### **USB kablea erabili aurretik**

Sistema eragile hauetako bat behar duzu fitxategiak USB kable bidez transferitzeko:

- Windows® 2000
- Windows XP (Pro eta Home)
- Windows Vista (hauen 32 bit eta 64 biteko bertsioak: Ultimate, Enterprise, Business, Home Premium, Home Basic)

### **Baliabideak transferitzea eta biltegitratze masiboa**

Fitxategiak telefonoaren edo memoria-txartelaren eta ordenagailu baten artean fitxategiak arrastatu eta askatzeko, zoaz *Microsoften Windows-en* arakatzailera.

- ! Erabili bakarrik telefonoarekin bateragarria den USB kablea. Ez atera USB kablea telefonotik edo ekipotik fitxategien transferentzia egin bitartean, telefonoaren memoria edo memoria-txartela honda baitaitezke.

### **Baliabideen transferentzia eta biltegitratze masiboa erabiltzeko**



- 💡 *Fitxategiak transferitu aurretik Sony Ericsson PC Suite softwarea instalatu behar duzu ordenagailuan. Ikus Sony Ericsson PC Suite instalatzeko, 61. orrialdean.*

- 1 Konektatu USB kablea telefonora edo ordenagailura.

- 2 **Telefonoa:** hautatu **Almacen. masivo > Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > USB > USB modua > Almacen. masivo.** Telefonoa modu horretan itxiko da, eta USB kablea deskonektatutakoan berrabiaraziko da.
- 3 **Telefonoa:** hautatu **Transf. de medios** eta telefonoa aktibo egongo da fitxategiak transferitu bitartean.
- 4 **Ordenagailuan:** itxaron telefonoaren memoria edo memoria-txartela Windows-en arakatzaillean kanpoko disko gisa bistaratu arte.
- 5 Arrastatu eta askatu hautatutako fitxategiak, telefonotik ordenagailura eta alderantziz.

### **USB kablea segurtasun osoz deskonektatzeko**

- 1 Egin klik saguaren eskuineko botoiaz Windows-en arakatzailako disko aldagarriaren ikonoaren gainean.
- 2 Hautatu *Expulsar*.
- 3 Deskonektatu USB kablea, telefonoan mezu hau bistaratzen denean: **La sesión de almacenamiento masivo ha finalizado. Ahora puede extraer el cable USB de forma segura.**

### **Telefonoaren modua**

Sinkronizazioaren aurretik edo telefonoa modem gisa erabili aurretik, *Sony Ericsson PC Suite* softwarea ordenagailuan

instalatu behar duzu. Ikus *Sony Ericsson PC Suite instalatzeko*, 61. orrialdean.

### **Telefono-modua erabiltzeko**

- 1 **Ordenagailua:** abiarazi *PC Suite*, aukera honetatik: *Hasi Programak | Sony Ericsson | PC Suite*.
- 2 Konektatu USB kablea telefonora edo ordenagailura.
- 3 **Telefonoa:** hautatu **Mod. Teléfono > Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna fitxa > USB > Modo USB > Mod. Teléfono.** Ordenagailua: *Sony Ericsson PC Suite* k zure telefonoa aurkitu duela dioen mezu bat agertzen denean, telefono-moduaren aplikazioak erabiltzen has zaitezke.



*Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Sony Ericsson PC Suite-ren laguntzako atala, ordenagailuan softwarea instalatu ondoren.*

## **Sinkronizazioa**

USB kablea edo haririk gabeko Bluetooth teknologia erabil dezakezu telefono-aurkibidea, hitzorduak, gogokoak, atazak eta oharrak ordenagailuko programarekin (adibidez, Microsoft Outlook-ekin) sinkronizatzen. Interneteko zerbitzu batekin ere sinkroniza daiteke SyncML bidez edo Microsoft® Exchange Server bidez Exchange ActiveSync. erabiliz

Informazio gehiagorako, kontsultatu Hasi atala [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) orrian.

 Erabili telefonoarekin sinkronizatzeako moduetako bakar bat aldiko.

### **Ordenagailuarekin sinkronizatzea**

Sinkronizazioaren aurretik, telefonoarekin datorren CDan dagoen *Sony Ericsson PC Suite* instalatu behar duzu. Laguntzeko informazioa duzu softwarean. Web [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) orrira ere joan zaitezke softwarea deskargatzeko.

PC Suite ordenagailuan erabili ahal izateko sistema hauek behar dituzu:

- Windows XP (Pro eta Home)
- Windows Vista (hauen 32 bit eta 64 biteko bertsioak: Ultimate, Enterprise, Business, Home Premium, Home Basic)

### **Sony Ericsson PC Suite instalatzeko**

- 1 Piztu ordenagailua, eta sartu CDa. CDa automatikoki abiarazten da eta instalatzeko leihoa irekitzen da.
- 2 Hautatu hizkuntza eta sakatu *Aceptar*.
- 3 Egin klik *Instalar Sony Ericsson PC Suite* aukeran, eta jarraitu pantailako jarraibideei.

### **Interneteko zerbitzu baten bidez sinkronizatzea**

Linean sinkroniza dezakezu, Interneteko zerbitzu bat telefonoan erabilia. Telefonoan Interneteko ezarpenak ez badira sartu, ikus *Ezarpenak*, 54. orrialdean.

### **Sinkronizazioa hasi aurretik**

SyncML sinkronizazioaren ezarpenak sartu eta lineako sinkronizazio-kontu bat erregistratu behar duzu zerbitzu-hornitzaile batekin. Hauek dira beharrezkoak diren ezarpenak:

- **Zerbitzariaren helbidea:** zerbitzariaren URLa:
- **Datu-basearen izena:** zer datu-baserekin sinkronizatu behar den

### **SyncML ezarpenak sartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Sinkronizazioa**.
- 2 Joan **Kontu berria** aukeraraino, eta hautatu **Gehitu > SyncML**.
- 3 Sartu kontu berriaren izena eta hautatu **Kont.**
- 4 Hautatu **Zerbitzariaren helbidea**. Sartu behar den informazioa, eta hautatu **Onartu**.
- 5 Sartu **Pasahitza** eta **Erabiltzaile-izena**, behar izanez gero.
- 6 Joan **Aplikazioak** fitxara, eta markatu sinkronizatu nahi dituzun aplikazioak.
- 7 Hautatu **Datu-basearen izena**, eta sartu behar den informazioa.
- 8 Joan **Aurreratuak** fitxara, eta sartu sinkronizatzeko beste ezarpen batzuk.
- 9 Hautatu **Gorde**.

### **Kontuak ezabatzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Organizador > Sinkronizazioa**.
- 2 Joan kontu batera, eta hautatu **Aukera**. Ezabatu

### **Sinkronizazioa hasteko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menú > Organizador > Sincronización**.
- 2 Joan kontu batera eta hautatu **Iniciar**.

### **Microsoft® Exchange Server bidez sinkronizatzea**

Enpresako trukatzeko informazioa –esaterako, posta elektronikoa, agenda edo egutegiko sarrerak– telefonoa erabiliz Microsoft® Exchange Server zerbitzari batekin eskura edo sinkroniza daitezke.



*Sinkronizazioaren ezarpenei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Informazio Teknologien administrazioarekin.*

### **Sinkronizazioa hasi aurretik**

Exchange ActiveSync-en ezarpenak sartu behar dituzu Microsoft Exchange Server-era sartzeko. Hauek dira beharrezkoak diren ezarpenak:

- **Zerbitzariaren helbidea:** zerbitzariaren URLa
- **Domeinua:** zerbitzariaren domeinua
- **Erabiltzaile-izena:** kontuaren erabiltzailearen izena.
- **Pasahitza:** kontuaren pasahitza.

### **Exchange ActiveSync ezarpenak sartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Sinkronizazioa**.
- 2 Joan **Kontu berria** aukeraraino, eta hautatu **Gehitu > MS Exchange**.
- 3 Sartu kontu berriaren izena, eta hautatu **Kont.**
- 4 Egin beharrezko ezarpenak.

- 5 Zoaz fitxetara, beste ezarpen batzuk sartzeko.
- 6 Hautatu **Guardar**.

### ***Sinkronizazioa hasteko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Sinkronizazioa**.
- 2 Joan kontu batera, eta hautatu **Piztu**.



### **Eguneratze-zerbitzua**

Software berrienarekin eguneratu dezakezu telefonoa. Ez galdu informazio pertsonala edo telefonoko informazioa.

Telefonoa eguneratzeko bi modu daude:

- Airez, telefonoaren bidez
- telefonoarekin emandako USB kablearen bidez eta ekipoa Internetera konektatuta



*neratze-zerbitzuak GPRS, 3G edo HSDPA datuetarako sarbidea behar du.*

**Eguneratze-zerbitzua erabili aurretik** Ezarpenak telefonoan sartuta ez badaude, ikus *Ezarpenak*, 54. orrialdean.

### ***Telefonoaren uneko softwarea ikusteko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Eguneratze zerbitzua**.
- 2 Hautatu **Software bertsioa**.

### ***Eguneratze-zerbitzua telefono bidez erabiltzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Eguneratze zerbitzua**.
- 2 Hautatu **Bilatu eguneratzea**, eta jarraitu agertzen diren jarraibideei.

### ***USB kablearen bidez eguneratze-zerbitzua erabiltzeko***

- 1 Zoaz [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) orrira edo sakatu *Servicio de actualización de Sony Ericsson PC Suite* softwarean, ordenagailuan instalatua baduzu. Ikus *Sony Ericsson PC Suite instalatzeko*, 61. orrialdean.
- 2 Hautatu eskualde bat eta herrialde bat.
- 3 Jarraitu pantailako argibideei.

### ***Eguneratze-zerbitzua erabiltzeko abisu bat definitzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Eguneratze zerbitzua**. > **Abisua**.
- 2 Hautatu aukera bat.



# Funtzio gehiago

## Alarmak

Alarmaren seinale gisa soinu bat edo irratia hauta dezakezu. Telefonoa itzalita badago ere, alarmak jo egiten du. Alarmak jotzen duenean, 9 minutuz isilarazi edo itzali egin ahal izango duzu.

### *Alarma ezartzeko*

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarmak**.
- 2 Joan alarma batera, eta hautatu **Editatu**.
- 3 Joan **Denbora**: aukerara, eta hautatu **Editatu**.
- 4 Sartu ordu bat, eta hautatu **Onartu > Gorde**.

### *Alarma errepikaria ezartzeko*

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarmak**.
- 2 Joan alarma batera, eta hautatu **Editatu**.
- 3 Zoaz **Errepikatua**: aukerara, eta hautatu **Editatu**.
- 4 Joan egun batera, eta hautatu **Markatu**.
- 5 Beste egun bat hautatzeko, joan nahi duzun egunera, eta hautatu **Markatu**.
- 6 Hautatu **Eginda > Gorde**.

### *Alarma-seinaleak ezartzeko*

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarmak**.
- 2 Joan alarma batera, eta hautatu **Editatu**.
- 3 Zoaz **Alarma-seinalea** aukerara, eta hautatu **Editatu**.
- 4 Bilatu eta hautatu alarma-seinale bat. Hautatu **Gorde**.

### *Alarma isilarazteko*

- Alarmak jotzen duenean, sakatu edozein tekla.
- Alarmak berriro jo dezan, hautatu **Lokulx**.

### *Alarma desaktibatzeke*

- Alarmak jotzen duenean, hautatu **Desaktibat**.


### *Alarma bertan behera uzteko*

- 1 txaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarmak**.
- 2 Joan alarma batera, eta hautatu **Desaktibat**.

### *Alarma isilik moduan*

Telefonoa isilik moduan dagoenean alarmak jo ez dezan ezar dezakezu alarma.

### ***Modu isilean alarmak jotzea ala ez jotzea hautatzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarmak**.
- 2 Joan alarma batera eta hautatu **Editatu**.
- 3 Joan  fitxara.
- 4 Joan **Modu isila** atalera eta hautatu **Editatu**.
- 5 Hautatu aukera bat.

### **Egutegia**

Egutegia ordenagailuko egutegiarekin, web-eko batekin edo Microsoft Exchange Server-eko batekin (Microsoft® Outlook®) sinkroniza dezakezu. Informazio gehiago lortzeko, irakurri *Sinkronizazioa* atala 60. orrialdean.

### ***Lehenetsitako bistaratzea definitzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.
- 2 Hautatu **Aukerak > Aurreratuak > Ikuspegi lehenetsi**.
- 3 Hautatu aukera bat.

### **Hitzorduak**

Hitzordu berriak sar ditzakezu, edo lehendik zeuden hitzorduak erabili.

### ***Hitzordu bat sartzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.
- 2 Hautatu data bat.
- 3 Joan **Hitzordu berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 4 Sartu informazioa, eta berretsi sarrera bakoitza.
- 5 Hautatu **Gorde**.

### ***Hitzordu bat ikusteko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.
- 2 Hautatu data bat.
- 3 Joan hitzordu batera eta hautatu **Ikusi**.

### ***Hitzordu bat editatzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.
- 2 Hautatu data bat.
- 3 Joan hitzordu batera eta hautatu **Ikusi**.
- 4 Hautatu **Aukerak > Editatu**.
- 5 Editatu hitzordua, eta berretsi sarrera bakoitza.
- 6 Hautatu **Gorde**.

### ***Hitzordu bat bidaltzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.
- 2 Hautatu data bat.
- 3 Joan hitzordu batera eta hautatu **Aukerak > Bidali**.
- 4 Hautatu transferentzia-metodo bat.

- ! Ziurtatu hartzailearen gailuak zuk transferitzeko hautatutako modua onartzen duela.

### **Egutegiko aste bat ikusteko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Egutegia.
- 2 Hautatu data bat. Hautatu Auker. > Ikusi astea.

### **Abisuak noiz jo behar duten definitzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Egutegia.
- 2 Hautatu data bat.
- 3 Hautatu Aukerak > Aurreratuak > Abisuak.
- 4 Hautatu aukera bat.

- ! Egutegian konfiguratutako abisuaren aukerak atazetan konfiguratutako aukerari eragiten dio.

## **Atazak**

Ataza berriak sar ditzakezu, edo lehendik zeudenak berriro erabili.

### **Atazak sartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Atazak.
- 2 Hautatu Ataza berria, eta hautatu Gehitu.

- 3 Hautatu aukera bat.
- 4 Idatzi xehetasunak eta berretsi sarrera.

### **Ataza ikusteko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Atazak.
- 2 Joan ataza batera eta hautatu Ikusi.

### **Lehendik zegoen ataza bat berriro erabiltzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Atazak.
- 2 Joan ataza batera eta hautatu Ikusi.
- 3 Hautatu Aukerak > Editatu.
- 4 Aldatu ataza, eta hautatu Jarraitu.
- 5 Erabaki zer abisu ezarri behar duzun.

### **Ataza bat bidaltzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu Menua > Antolatzailea > Atazak.
- 2 Joan ataza batera eta hautatu Aukerak > Bidali.
- 3 Hautatu transferentzia-metodo bat.

- ! Ziurtatu hartzailearen gailuak zuk transferitzeko hautatutako modua onartzen duela.

### **Abisuek noiz jo behar duten definitzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Atazak**.
- 2 Joan ataza batera eta hautatu **Aukerak > Abisuak**.
- 3 Hautatu aukera bat.

! *Atazetan konfiguratutako abisuaren aukerak egutegian konfiguratutako aukerari eragiten dio.*

## **Tenporizadorea, kronometroa eta kalkulagailua**

### **Tenporizadorea konfiguratzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Tenporizadorea**.
- 2 Sartu orduak, minutuak eta segundoak.
- 3 Hautatu **Piztu**.

### **Kronometroa erabiltzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Kronometroa > Piztu**.
- 2 Etapa berri bat ikusteko, hautatu **Etap. berria**.

### **Kalkulagailua erabiltzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Kalkulagailua**.
- 2 Sakatu  $\odot$  edo  $\odot \div x - +. \% =$  hautatzeko.

## **Memoria-kodea**

Segurtasun-kodeak –hala nola kreditu-txartelenak– gorde ditzakezu. Sarbide-kodea definitu behar duzu memoria-kodea irekitzeko.

### **Gako-hitza**

Sarbide-kode zuzena sartu duzula berresten du gako-hitza. Sarrerako kodea zuzena bada, kode zuzenak bistaratzen dira. Sarbide-kodea okerra bada, agertuko diren gako-hitza eta kodeak ez dira zuzenak izango.

### **Kodea memoria lehenengo aldiz irekitzeko**

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Kode memoria**.
- 2 Segi agertzen diren jarraibideei, eta hautatu **Jarraitu**.
- 3 Sartu sarbide-kodea, eta hautatu **Jarraitu**.
- 4 Berretsi sarbide-kodea, eta hautatu **Jarraitu**.
- 5 Sartu gako-hitza eta hautatu **Eginda**.

### ***Kode bat sartzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Kode memoria**.
- 2 Sartu sarbide-kodea, eta hautatu **Jarraitu**.
- 3 Joan **Kode berria** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 4 Idatzi kodeari dagokion izena, eta hautatu **Jarraitu**.
- 5 Sartu kodea eta hautatu **Eginda**.

### ***Sarbide-kodea aldatzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Kode memoria**.
- 2 Sartu zure sarbide-kodea, eta hautatu **Aukerak**.
- 3 Hautatu **Aukerak > Aldatu pasakodea**.
- 4 Sartu berriz kode berria, eta hautatu **Jarraitu**.
- 5 Sartu gako-hitza eta hautatu **Eginda**.

### **Sarbide-kodea ahaztu egin zaizu?**

Sarbide-kodea ahaztu bazaizu, memoria-kodea berrezarri behar duzu. Horren ondorioz, memoria-kodeko sarrera guztiak ezabatu egingo dira.

Memoria-kodera sartzen zaren hurrengo aldian, lehen aldian bezala ireki behar duzu. Ikus *Memoria-kodea aukera lehenengo aldiz irekitzeko*, 67. orrialdean.

### ***Memoria-kodea berrezartzeko***

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Kode memoria**.
- 2 Idatzi edozein sarbide-kode memoria-kodera sartzeko. Agertuko diren gako-hitza eta kodeak ez dira zuzenak izango.
- 3 Hautatu **Aukerak > Berrezarri**.
- 4 Mezu hau agertuko da: **Berrezarri kode memoria?**
- 5 Hautatu **Bai**.

## **Profilak**

### ***Profil bat hautatzeko:***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > profilak**.
- 2 Hautatu profil bat.

### ***Profil bat ikusi eta editatzeko***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Profilak**.
- 2 Joan profil batera eta hautatu **Aukerak > Bistar**. eta editatu.

**!** *Profil arruntaren izena ezin da aldatu.*

### **Profil guztiak ezartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra** fitxa > **Profilak**.
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Berrezarri profilak**.

## **Ordua eta data**

### **Ordua ezartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra** fitxa > **Ordua eta data** > **Ordua**.
- 2 Sartu ordua, eta hautatu **Gorde**.

### **Data ezartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra** fitxa > **Ordua eta data** > **Data**.
- 2 Idatzi data eta hautatu **Gorde**.

### **Ordu-eremua ezartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra** fitxa > **Ordua eta data** > **Nire ordu eremua**.
- 2 Hautatu, hiriaren arabera, zauden tokiko ordu-eremua.

**!** *Hiri bat hautatzen baduzu, Nire ordu-eremua eguneratu egingo da udako ordutegia aldatzen denean.*

## **Blokeoak**

### **SIM txartela blokeatzea**

Blokeatze horrek zure harpidetza bakarrik babesten du. Telefonoak funtzionatuko du beste SIM txartel batekin. Blokeatzea aktibatuta badago, PIN kodea (identifikazio pertsonaleko zenbakia) sartu behar duzu.

PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. PUK kodea (desblokeatze-kode pertsonala) sartu behar duzu. Sare-operadoreak emango dizkizu PIN eta PUK kodeak.

### **SIM txartela desblokeatzeko**

- 1 **PINa** blokeatuta mezua azaltzen denean, sartu **PUK** kodea > **Ados**.
- 2 Sartu **PIN** kode berria, lau eta zortzi digitu artekoa, eta sakatu **Ados**.
- 3 Sartu berriz **PIN** kode berria, eta hautatu **Ados**.

### **PINa editatzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra** fitxa > **Segurtasuna** > **Blokeoak** > **SIM babesa** > **Aldatu PIN**.
- 2 Sartu **PINa** eta sakatu **Ados**.

- 3 Sartu PIN zenbaki berria, lau eta zortzi digitu artekoa, eta sakatu **Ados**.
- 4 Errepikatu PIN kode berria, eta hautatu **Ados**.

**!** *Kodeak ez datoz bat mezua bistaritzen bada, PINa gaizki sartu duzula adierazten du.*

*PIN zenbaki okerra eta segidan PIN zenbaki zaharra: mezuak bistaritzen badira, PIN zaharra gaizki sartu duzula esan nahi du.*

### **SIM txartelaren blokeoa erabiltzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra fitxa** > **Segurtasuna** > **Blokeoak** > **SIMaren babesa** > **Babesa**.
- 2 Hautatu aukera bat.
- 3 Sartu PINa eta sakatu **Ados**.

### **Telefonoa blokeatzea**

Ezin duzu eragotzi telefonoa baimenik gabe erabiltzea. Aldatu telefonoa blokeatzeko kodea (0000), eta lau digitutik zortzira bitarteko edozein kode pertsonal jarri.

**!** *Komeni da kode berria ez ahaztea. Kode berria ahaztuz gero, telefonoa Sony Ericssonen tokiko hornitzaileari eman beharko diozu.*

### **Telefonoaren blokeoa erabiltzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra fitxa** > **Segurtasuna** > **Blokeoak** > **Telefonoaren babesa** > **Babesa**.
- 2 Hautatu aukera bat.
- 3 Sartu telefonoa blokeatzeko kodea eta sakatu **Ados**.

### **Telefonoa desblokeatzeko**

- Sartu kodea eta hautatu **Ados**.

### **Telefonoa blokeatzeko kodea aldatzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra fitxa** > **Segurtasuna** > **Blokeoak** > **Telefonoaren babesa** > **Aldatu kodea**.
- 2 Sartu PIN kode zaharra, eta hautatu **Ados**.
- 3 Sartu PIN kode berria, eta hautatu **Ados**.
- 4 Sartu berriro kodea, eta hautatu **Ados**.

### **Teklatua blokeatzea**

Blokeo hori ezar dezakezu, ustekabeen zenbakiren bat ez markatzeko. Jasotzen diren deiei teklatua desblokeatu beharrik gabe erantzun diezaikezu.

! *Horrez gain, nazioarteko larrialdi-zenbakira (112) ere deitu dezakezu.*

### **Teklen blokeo automatikoa erabiltzeko**

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Segurtasuna > Tekl. autom. blokeat.**
- 2 Hautatu aukera bat.

### **Teklatua eskuz desblokeatzeko**

- Itxaroteko moduan dagoela, hautatu lehenengo ... eta, ondoren, **Desbl. > Ados**

### **IMEI zenbakia**

Gorde IMEI zenbakiaren (ekipo mugikorraren nazioarteko identitatea) kopia bat, telefonoa lapurtuz gero erabiltzeko.

### **IMEI zenbakia ikusteko**

- Itxaroteko egoeran, sakatu **\*#06#**, **#06#**, **0+**, **6**, **#06#**.

## **Arazoak konpontzea**

Zenbait arazo konpontzeko, sare-operadoreari deitu beharko diozu.

Laguntza gehiago nahi baduzu, sartu [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) web orrian.

## **Ohiko galderak**

*Memoriaren edukierarekin arazoak ditut edo telefonoa mantso dabil*

Egunero berrabiarazi telefonoa memoria husteko, eta egin **Berezartze orokorra** eragiketa.

### **Berrabiarazte orokorra**

**Berezarri ezarpenak** hautatzen baduzu, telefonoaren doikuntzei egindako aldaketak ezabatuko dira.

**Guztiak berrezarri** hautatzen baduzu, egindako doikuntzez gain, kontaktu guztiak, mezuak, datu pertsonalak eta deskargatutako, jasotako edo editatutako edukia ezabatuko dira.

### **Telefonoaren ezarpenak berriro ezartzeko**

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Berezartze orokorra.**
- 2 Hautatu aukera bat.
- 3 Segi agertzen diren jarraibideei.



### ***Ezin dut telefonoa kargatu edo bateriaren ahalmena baxua da***

Kargagailua ez dago behar bezala konektatua, edo bateriaren konexioa ez da zuzena. Kendu bateria eta garbitu konektoreak.

Bateria hondatuta dago eta berria jarri behar duzu. Kontsulta ezazu *Bateria kargatzea* atala, 7. orrialdean.

### ***Telefonoa kargatzen jartzen dudanean bateriaren ikonoa ez da bistaritzen***

Bateriaren ikonoa pantailan agertu arte, baliteke minutu batzuk igarotzea.

### ***Menuko aukera batzuk grisez daude***

Zerbitzuren bat ez dago aktibatua. jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

### ***Ezin ditut telefonoko testu-mezuak edo SMSak erabili***


Ezarpen batzuk falta dira edo ez dira zuzenak. Jarri harremanetan sare-operadorearekin, SMS zerbitzuen zentroko ezarpenak zein diren jakiteko. Ikus *SMS*, 31. orrialdean.

### ***Ezin ditut erabili MMS mezuak telefonoan***

Zure harpidetzan ez da sartzen datuen edukiera. Ezarpen batzuk falta dira edo ez dira zuzenak. jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

Ikus *Telefonoaren laguntza*, 6. orrialdean, edo zoaz [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) gunera, ezarpenak eskatzeko eta pantailako argibideei jarraitzeko. Ikus *Ezarpenak*, 54. orrialdean.

### ***Idazten ari naizela, nola piztu eta itzaltzen da T9 Text Input?***

Testua sartzean, luze sakatu  tekla. **T9** agertzen da, pantailaren goiko aldean, T9 Text Input aktibatuta dagoenean.

### ***Nola aldatzen da telefonoaren hizkuntza?***

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Orokorra** fitxa > **Hizkuntza** > **Tel. hizkuntza**.
- 2 Hautatu aukera bat.

### ***Ezin dut Internet erabili***

Zure harpidetzan ez da sartzen datuen edukiera. Interneteko ezarpen batzuk falta dira edo ez dira zuzenak. jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

Ikus *Telefonoaren laguntza*, 6. orrialdean, edo zoaz [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) gunera, ezarpenak eskatzeko eta pantailako argibideei jarraitzeko. Ikus *Ezarpenak*, 54. orrialdean.

### ***Beste gailu batzuek ez dute telefonoa detektatzen hariirik gabeko Bluetooth teknologiaren bidez***

Ez duzu Bluetooth funtzioa aktibatu.

Ziurtatu ikusgai jartzeko aukera ezarri dela telefonoa bistartzeko. Ikus *Elementu bat jasotzeko*, 58. orrialdean.

### ***Ezin ditut telefonoa eta ordenagailua sinkronizatu eta datuak transferitu USB kablea erabilita***

Zure telefonoak dakarren kablea edo softwarea ez da instalatu behar bezala. Joan [www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) gunera, hasiera bizkorreko gidak irakurtzeko. Instalazioari buruzko argibide xehatuak eta arazoak konpontzeko gidaliburuak daude.

## **Errore-mezuak**

### **Sartu SIM txartela**

ez dago SIM txartelik telefonoan edo, baldin badago, baliteke gaizki jarrita egotea.

Kontsulta ezazu *Bateria kargatzea* atala, 7. orrialdean.

SIM txartelerako konektoreak garbitu egin behar dira. Txartela kaltetua dago. Galdetu sare-operadoreari.

### **SIM txartel egokia sartzea**

SIM txartel jakin batzuekin bakarrik funtzionatzeko dago definituta telefonoa. Egiaztatu operadorearen SIM txartel egokia erabiltzen ari zarela.

### **PIN okerra/PIN2 okerra**

Sartutako PINa edo PIN2 a ez da zuzena.

Sartu PIN edo PIN2 kodea, eta hautatu Bai. Ikus *SIM txartela sartzea*, 5. orrialdean.

### **PINa blokeatuta/PIN2 a blokeatuta**

PIN edo PIN2 kodea gaizki sartu duzu hiru aldiz segidan.

Telefonoa desblokeatzeko, ikus ezazu *SIM txartela blokeatzea*, 69. orrialdean.

### Kodeak ez datoz bat

Sartu dituzun kodeak ez datoz bat. Segurtasun-kode bat aldatu nahi baduzu (adibidez, zure PINa), kode berria berretsi behar duzu. Ikus *SIM txartela blokeatzea*, 69. orrialdean.

### Sarerik ez dago

Telefonoa hegazkineko moduan dago. Ikus *Hegaldi modua menua*, 6. orrialdean.

Telefonoa ez da sare-seinalerik jasotzen ari edo jasotzen duena oso ahula da. Jarri harremanetan sare-operadorearekin eta ziurtatu sareak estaldura duela zu zauden tokian.

SIM txartela ez dabil behar bezala. sar ezazu zure SIM txartela beste telefono batean. Ondo badabil, litekeena da telefonoa gaizki egotea. Jarri harremanetan gertuen duzun Sony Ericssonen bezeroentzako arreta-zerbitzuarekin.

### Larrialdi-deiak bakarrik

sare baten estalduraren barruan zaude, baina ez duzu baimenik erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, larrialdian bazaude, sare-operadore batzuek uzten dute 112 nazioarteko larrialdi-zenbakira deitzen. Kontsulta ezazu *Larrialdiko deiak* atala, 18. orrialdean.

### PUKa blokeatuta. Jarri harremanetan operadorearekin.

Desblokeatzeko kode pertsonal bat (PUKa) gaizki sartu duzu hamar aldiz segidan.

**Kargatzen... Bateria ez du ezagutzen** erabiltzen ari zaren bateria ez da Sony Ericssonen onartutakoa. Ikus *Bateria*, 78. orrialdean.

# Informazio garrantzitsua

## Sony Ericsson-en web gunea.

[www.sonyericsson.com/support](http://www.sonyericsson.com/support) web orrian laguntza-atala daukazu eskura. Modu erraz eta azkarrean eskuratuko dituzu hor laguntza eta aholkuak. Gune hartan, ordenagailurako softwarea eguneratuta eta produktuei ahalik eta etekin gehiena ateratzekoa aholkuak dituzu.

## Zerbitzua eta laguntza

Hemendik aurrera, hainbat abantaila izango duzu eta zerbitzu eskusibito batzuk izango dituzu, esate baterako:

- tokian tokiko eta munduko edozein txokotako web gunetan laguntza jasotzeko.
